

Antoine de Saint-Exupéry

Printze Txikia



Javier Alcázar Colillaren egokitzapena



Antoine de Saint-Exupéryri buruz

Antoine de Saint-Exupéry 1900. urtean jaio zen,
20. mendea hasten ari zenean.
Lyongo hiri frantsesean jaio zen.

Oso txikia zenetik pilotu izatearekin eta hegazkinez
munduan zehar hegan egin ahal izatearekin amestu zuen.

Hainbat lekutan lan egin zuen pilotu gisa,
hala nola Frantzian eta Espainian.
Afrikan, Sahara espainiarraren aire base batean,
lanean zegoela hasi zen idazten.

1928an Argentinara joan zen bizitzera.
Han Hego Amerikako posta-sarea antolatzen lan egin zuen.
Eta han ezagutu zuen bere emaztea, Consuelo Suncín.

Antoine 1932an bueltatu zen Europara,
eta gehien bat idazten eta kazetaritzan ibili zen.
Erreportajeak idatzi zituen Vietnami, Errusiari,
eta Espainiako Guda Zibilarri buruz.
Baina hegazkinak pilotatzen
eta lehiaketetan parte hartzen jarraitu zuen.

1939an Bigarren Mundu Gerra hasi zen.
Alemaniak Frantzia inbaditu zuen
eta aireko armadak Saint-Exupéry deitu zuen.
Baina Frantziak amore eman zuenean,
Antoinek Estatu Batuetara alde egin zuen.

Estatu Batuetan hainbat liburu argitaratu zituen.
Garrantzitsuena *Printze Txikia* izan zen,
mundu osoan famatu egin zuena.

1943an, Bigarren Mundu Gerra
amaitu baino urte bat lehenago,
armada frantsesean sartu zen berriro.
Hainbat misiotan hartu zuen parte pilotu gisa
Mediterraneo aldean.
Baina 1944ko uztailaren 31n,
misio batean parte hartzen zegoela,
haren hegazkina desagertu zen.

2000. urtearen inguruan aurkitu zuten
bere hegazkinetik geratzen zena
Riou irlan, Marseillako kostaldetik oso hurbil, Frantzian.

Printze Txikiaz gain
Saint-Exupéryren obra famatuenetariko batzuk hurrengoak dira:
Pilotua, *Hegoaldeko posta*, *Gizonen lurraldea*, *Gaueko hegaldia*,
eta bere heriotzaren ostean argitaratu zen *Gotorlekua*.

Printze Txikiari buruz

Antoine de Saint Exupéryk *Printze Txikia*
Estatu Batuetan idatzi zuen, 1942ko udan.
1943an argitaratu zenetik arrakasta izan zuen.
Frantzian 1946an argitaratu zen,
jada Bigarren Mundu Gerra bukatu zenean.

Printze Txikia historian frantsesez dagoen libururik irakurriena da.
Frantsesez dagoen libururik itzuliena da ere:
250 hizkuntza ezberdin baino gehiagotara itzuli da.

Printze Txikia adin guztietarako eleberri laburra da.
Liburuak denok barnean daramagun haurra
bizirik mantendu dezagun nahi du.
Horregatik da munduko milioika pertsonen
libururik gustukoena.

Irakurketa Errazaren moldaketa honek
Printze Txikiaren magia gerturatu nahi dio
jatorrizkoaz gozatu ezin izan duen publikoari.

Espero dugu irakurle guztiek goza dezaten:
mundua Printze Txikiaren begietatik ikusteak
barrea eta negarra eragiten dizkigu.
Eta garrantzitsuena aurkitzen laguntzen digu:
“Bihotzarekin bakarrik ikusten da ondo;
funtsezkoena ikusezina da begietara.”

Antoine de Saint-Exupéry


Printze Txikia

1. kapitulua

Sei urte nituenean, oihanari buruzko liburu bat irakurri nuen.
Han jartzen zuen boa¹ batek bere harrapakina²
osorik jaten duela
eta murtzikatu gabe irensten duela.
Gero, sei hilabetez lo egiten du
digestioa egiten duen bitartean.


Beraz, erabaki nuen
elefante bat osorik jan duen boa bat marraztea.
Nagusiei nire marrazkia erakusten hasi nintzen.
Suposatu nuen zerbait hain izugarriak beldurra emango ziela.

Alabaina, denek txapela batekin nahasten zuten.
Eta denek esaten zuten txapelek ez zietela beldurrik ematen.



-
1. Boa: Amerikan bizi den suge oso handi bat da.
 2. Harrapakina: Ehiztari batek ehizatzen duen animalia da.

Nagusiek ez zuten nire marrazkia ulertzen.
Beraz, erabaki nuen boa barrutik marraztea.
Elefantea boaren sabelean ikus zitekeen.
Horrela, nagusiek ulertu ahal egingo zuten.
Batzuetan, nagusiei dena azaldu behar zaie;
pixka bat aspergarria da.



Nire bigarren marrazkia ere ez zitzaion inori gustatu.
Nagusi guztiek gomendatu zidaten marrazteari uztea.
Ikasketetan arreta jarri behar nuela esaten zidaten:
historian, matematiketan edo hizkuntzan.
Beraz, nire ibilbidea artista gisa alde batera utzi
eta hegazkin pilotua bihurtzea erabaki nuen.

Nire bizitza osoan zehar jende serio ugari
eta pertsona nagusi ugari ezagutu ditut.
Eta haien inguruan dudan iritzia ez da gehiegi hobetu.

Azkarragoa zirudien norbaitekin aurkitu naizen aldietan,
nire boaren eta elefantearen marrazkia erakusten nion,
eta denek beti txapela bat ikusten zuten.

Horrela, nik jada ez nien boari eta elefanteari buruz hitz egiten,
baizik eta politikari, kirolei
eta nagusiek gustuko duten beste gaiei buruz.

Eta denek beti esaten zidaten gizon zentzuduna nintzela.